

ADITU-RA SARBIDEA IZATEKO ETA ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

(Indarrean 2025/09/15etik)

1. BALDINTZA OROKORREN EREMUA, XEDEA ETA IRISMENA

Xedapen hauek (aurrerantzean, “**BALDINTZA OROKORRAK**”) arautzen dituzte “Aditu” tresna teknologikoaren (aurrerantzean, “**ADITU**”) sarbidea eta erabilera zuzenduko dituzten baldintzak. Tresna teknologiko hori ELEKA INGENIARITZA LINGUISTIKOA SLUk jartzen du kontratatzen duten bezero profesionalen (aurrerantzean, “**BEZEROA**”) eskura (ELEKA INGENIARITZA LINGUISTIKOA SLU Espainiako legediaren arabera legez eratutako entitatea da; egoitza Usurbilen du (Gipuzkoa), Zelai Haundi 3, Osinalde Industrialdea helbidean; Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua dago, 1.972 liburukian, 71 folioan, SS-21.026 orrian, eta IFZ B-20779161 du).

Aurrekoari kalterik egin gabe, ADITUN jasotzen diren funtzionaltasun eta zerbitzu batzuetarako sarbideak eta haien erabilerak baldintza partikularrak izan ditzakete (aurrerantzean, “**BALDINTZA PARTIKULARRAK**”). Kasuaren arabera, BALDINTZA PARTIKULARREK BALDINTZA OROKORRAK osatuko edo aldatuko dituzte, eta, kontraesanen bat baldin badago, haien gainetik egongo dira. Horren ondorioz, funtzionaltasun edo zerbitzu horiek erabili aurretik, haiek arautzen dituzten BALDINTZA PARTIKULARRAK onartu beharko ditu BEZEROAK, dagokion onarpen-sistemaren bidez.

ADITUREN sarbidea eta erabilera kontratatzean, BEZEROAK berariaz eta erreserbarik gabe onartzen ditu BALDINTZA OROKORRAK; onarpen horrek idatziz eta sinadurarekin egiten den edozein kontraturen pareko baliozkotasuna eta eraginkortasuna ditu BEZEROAK ez baditu osorik onartzen BALDINTZA OROKORRAK, ez du baimenik izango ADITU erabiltzeko.

2. DEFINIZIOAK

BALDINTZA OROKORREN ondorioetarako, kontzeptu hauek jarraian adierazten den esanahia izango dute:

- “**BALDINTZA OROKORRAK**”: Xedapen hauek eta berauen eranskinak.
- “**BALDINTZA PARTIKULARRAK**”: ADITUN jasotzen diren funtzionaltasun eta zerbitzu batzuen atzipenari eta erabilerari buruzko edozein baldintza partikular, BALDINTZA OROKORRAK osatzeko ezartzen direnak.
- “**KONTRATUA**”: BALDINTZA OROKORRAK eta, halakorik bada, BALDINTZA PARTIKULARRAK batera.
- “**ELEKA**”: ELEKA INGENIARITZA LINGUISTIKOA SLU
- “**BEZEROA**”: ADITUREN sarbidea eta erabilera bere jarduera profesionalaren esparruan kontratatzen duen pertsona juridikoa edo profesional pertsona fisikoa.

- **“ALDERDIA/K”**: ELEKA eta BEZEROA batera, edo haietako bakoitza banaka, kasuaren arabera.
- **“ADITU”**: Hizketa-ezagutzako tresna teknologikoa, ELEKAK hura kontratatzen duten BEZEROEN eskura jartzen duena.
- **“API REST”**: ELEKAK ematen duen aplikazioak programatzeko interfazea, ADITU BEZEROAREN APLIKAZIOEKIN (aurrerago definitzen diren moduan) integratzeko aukera ematen duena.
- **“BEZEROAREN APLIKAZIOAK”**: BEZEROAK edo haren izenean garatutako softwarea edo zerbitzua, REST APIAREN bidez integratzen dena ADITUN.
- **“APIak”**: API REST eta BEZEROAREN APLIKAZIOAK, guztiak batera.
- **“WEB-SARBIDEA”**: ADITURA sartzeko web-ataria, www.aditu.eus URL helbide elektronikoa edo etorkizunean hura ordeztzen duen beste edozeinetan eskuragarri dagoena.
- **“SOFTWAREA”**: Cloud computing sistema batean oinarrituta dauden eta ADITU osatzen duten programa informatikoen eta beste aktibo eta zerbitzu teknologiko batzuen multzoa, barnean daudela API REST eta WEB-SARBIDE PUNTUA.
- **“HIZKUNTZA ERABILGARRIAK”**: ADITUK zer hizkuntzatan ezagutzen duen hizketa eta itzultzen duen; WEB-SARBIDE PUNTUAN identifikatzen dira une oro.
- **“AURREZ DEFINITUTAKO AHOTS SINTETIKOAK”**: ELEKAK sortzen dituen ahots sintetikoak dira, pertsona errealek ahotsekin bat ez datozenak, eta erakunde horrek BEZEROAREN esku jartzen ditu, ADITUren bidez, HIZKUNTZA ERABILGARRIETARA bikoiztutako audioak sortzeko.
- **“IMITAZIOZKO AHOTS SINTETIKOAK”**: ADITUren funtzionalitateetan sartzen den bikoizketa automatikoko prozesuan BEZEROAK hala eskatuta ELEKAK sortzen dituen ahots sintetikoak dira, BEZEROAREN EDUKIAN agertzen diren benetako pertsonen ahots modura emanak (ondoren zehazten den bezala), HIZKUNTZA ERABILGARRIETARA bikoiztutako audioak sortzeko.
- **“AHOTS SINTETIKOAK”**: Hori esatean batera hartzen dira AURREZ DEFINITUTAKO AHOTS SINTETIKOAK eta IMITAZIOZKO AHOTS SINTETIKOAK.
- **“ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK”**: ADITURAKO definitzen diren espezifikazio eta funtzionaltasunak, barnean daudela HIZKUNTZA ERABILGARRIAK eta gainerako funtzionaltasun guztiak; WEB-SARBIDE PUNTUAN ikus daitezke.
- **“BARNE-ERABILTZAILEAK”**: ADITURA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko baimena duten BEZEROAREN erakundeko erabiltzaileak.

- **“EGIAZTAGIRIA”**: BEZEROARI eta/edo BARNE-ERABILTZAILEARI ADITURA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko esleitzen zaizkion egiaztagiria, erabiltzaile-identifikadoreak eta/edo pasahitzak.
- **“ERABILERA-BAIMENA”**: KONTRATUA gauzatzearen ondorioz ELEKAK BEZEROARI ADITURA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko ematen dion eskubidea.
- **“BEZEROAREN EDUKIA”**: BEZEROAK edo haren BARNE-ERABILTZAILEEK, prozesatzeko, ADITURA bidaltzen dituzten edo han kargatzen dituzten bideo edo audioak.
- **“ONARTUTAKO FORMATUAK”**: BEZEROAREN EDUKIAREN formatuak, ADITUN kargatu eta prozesatu daitezkeenak, eta une oro WEB-SARBIDE PUNTUAN identifikatuta egongo direnak.
- **“PROZESATUTAKO EDUKIA”**: ADITUK, BEZEROAREN EDUKIAN oinarrituta eta haren prozesatze-eskaeraren erantzun gisa, modu automatizatuan sortzen dituen testu, dokumentu edo edukiak (audio-fitxategiak barne).
- **“PROZESATUTAKO EDUKIA”**: ADITUK, BEZEROAREN EDUKIAN oinarrituta eta haren prozesatze-eskaeraren erantzun gisa, modu automatizatuan sortzen dituen testu, dokumentu edo edukiak.
- **“KREDITUAK”**: Aurrez ordaindutako prozesamendu-denborako unitateak, BEZEROAK ADITUN erabiltzeko erosten dituenak ERABILERA-BAIMENA indarrean dagoen artean.
- **“PREZIOA”**: Eskuratutako KREDITUEN ordainetan eta ADITU erabiltzearen truke aurretiazko ordainketa gisa BEZEROAK ELEKARI egin beharko dion ordainketa.
- **“EZINBESTEKO KASUAK”**: Ohiz kanpoko, aurretik jakin ezineko edo saihestu ezineko edozein egoera edo gertaera, ELEKAREN borondatek kanpo dagoena, hala nola mota guztietako grebak, suteak, uholdeak, indar eragilea falta izatea, lehengaien falta edo eskasia, matxurak edo ezbeharrak ELEKAREN edo hari zerbitzuak eskaintzen dizkieten hirugarrenen instalazioetan, COVID-19ak eragindako alerta sanitariotik edo etorkizunean izan daitezkeen antzekoetatik eratorritako egoerak eta KONTRATUA gauzatu ondoren izan daitekeen bestelako edozein egoera, baldin eta ELEKAREN betebeharrak betetzea aldi baterako edo behin betiko ezinezkoa edo garestiegia izatea eragiten badute.
- **“INFORMAZIO KONFIDENTZIALA”**: ALDERDIETAKOREN baten titulartasuneko informazio edo jakintza oro —barnean direla teknologikoa, zientifikoa, komertziala, antolakuntzari dagokiona, finantzarioa edo beste motaren batekoa (know-how)—, beste ALDERDIAK eskura duena BEZEROAK ADITU erabiltzen duen artean. Besteak beste, eta adibide gisa, hauek barne hartzen dira: negozio-planekin, finantza-aurreikuspenekin, salmenta-txostenekin, oro har datu ez-pertsonalekin, ADITUREKIN berarekin oro har eta SOFTWAREAREKIN, patenteekin, markekin, baliagarritasun-modeloekin eta jabetza intelektualeko edo industrialeko bestelako eskubideekin edo haien eskaerekin (erregistratuta daudenak eta erregistratu gabekoak), asmakizunekin, prozesuekin (grafikoak eta bestelakoak),

eskuliburuekin, pasahitz informatikoekin, iturburu-kodeekin, prozesu edo diseinuekin (grafikoak eta bestelakoak), haien erabilerarekin edo ustiapenarekin erlazionatutako informazioa, betiere idatziz jasotzen bada konfidentzialak edo eskusiboak direla edo bitarteko pertsona batek halakotzat jo baditzake, egoerak kontuan hartuta.

- **“TITULARRA”**: INFORMAZIO KONFIDENTZIALAREN titularra den ALDERDIA.
- **“JASOTZAILEA”**: INFORMAZIO KONFIDENTZIALA jasotzen duen ALDERDIA.

3. ADITUREN DESKRIBAPEN OROKORRA ETA EZAUGARRIAK

3.1. ADITUREN izaera, edukia eta funtzionaltasunak

ADITU soluzio teknologiko bat da, ELEKAK diseinatua eta garatua, hizketa-ezagutzaile automatiko eta eleaniztun bat duena: adimen artifizialeko teknologien erabileran oinarritzen da, eta web-plataforma batetik atzitzen da; horri esker, BEZEROAREN APLIKAZIOEKIN integra daiteke web-zerbitzuen bidez (API REST).

Testuinguru horretan, ADITUK barne hartzen du SOFTWAREA, zeina “*Software as a Service*” edo “*SaaS*” gisa ematen baitzaio BEZEROARI eta bere ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOEN arabera.

BEZEROAK, ADITU erabiliz, funtzionaltasun hauek izango ditu:

- BEZEROAREN EDUKIA ONARTUTAKO FORMATUETAN kargatzea, transkribatzea eta automatikoki azpigituluak jartzea, funtzionaltasun horretarako ERABILGARRI DAUDEN HIZKUNTZETAN;
- ADITUrekin sortutako transkripzioak eta azpigituluak editatzea eta funtzionalitate horretarako ERABILGARRI DAUDEN HIZKUNTZETARA itzultzea;
- BEZEROAREN EDUKI baten inguruan sortutako transkripzioak eta azpigituluak prozesatzea, transkripzio horiei dagozkien audioak eta HIZKUNTZA ERABILGARRIETARA bikoiztutako azpigituluak automatikoki sortzea AHOTS SINTETIKOAK erabiliz, eta audio horiek SORTUTAKO EDUKIAN sartzea (HIZKUNTZA ERABILGARRIETARA bikoiztea; eta
- PROZESATUTAKO EDUKIA deskargatzea (editatu gabe, editatuta eta/edo bikoiztuta).

Nolanahi ere, dagozkion xedeetarako jasotzen da hizketaren ezagutza, transkripzioa eta azpigitulatzea eta ADITUREN bidez PROZESATUTAKO EDUKIAREN itzulpena erabat automatizatuak eta gizakien esku-hartzerik gabe eginak direla, eta, beraz, inola ere ez da joko ELEKAK, haren langileek edo kolaboratzaileek berrikusi eta baliozkotu dituztenik.

3.2. ERABILERA-BAIMENA

BALDINTZA OROKORRAK eta halakorik bada BALDINTZA PARTIKULARRAK onartuta ALDERDIEN artean KONTRATUA gauzatzeak BEZEROARI ERABILERA-BAIMEN bat ematen dio, zeinak ADITURA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko eskubidea ematen

baitio, ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOEN arabera eta BALDINTZA OROKORRETAN ezartzen diren eduki eta irismenarekin.

ERABILERA-BAIMEN hori aldi baterako, ez-esklusibo eta besterenezin gisa eta dagokion PREZIOA ordaintzeari lotuta konfiguratzeko da, eta mundu guztira zabaltzen da.

3.3. Eguneratzeak

ERABILERA-BAIMENA indarrean dagoen artean, ELEKAK BEZEROAREN eskura jarriko ditu bezeroen eskura oro har jartzen diren SOFTWAREAREN eta ADITUREN eguneratzeak eta hobekuntzak, BEZEROARENTZAT inolako kosturik eragin gabe.

Nolanahi ere, BEZEROAREN ardura izango da ELEKAK eskainitako bertsiorik eguneratuenean erabiltzea ADITU. ELEKAK ez du erantzungo eguneratze edo hobekuntza batek konponduko lituzkeen funtzionamendu okerrak daudenean.

3.4. Zerbitzu gehigarriak

Espresuki KONTRATUTIK kanpo geratzen da BEZEROAK eska dezakeen zerbitzu gehigarri oro, hala nola aholkularitza informatikoko zerbitzuak eta ELEKAK BEZEROARENTZAT moldaketa edo garapen informatikoak egitea; halakorik egitekotan, kontratu espezifiko bat egin beharko da ALDERDIEN artean.

4. ADITURAKO SARBIDEA ETA ERABILERA

4.1. Eskakizun teknikoak

BEZEROAREN ardura izango da ADITURA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko behar dituen ekipamendu informatikoez eta Internetarako konexioez hornitzea, eta ELEKAK ez du izango inolako betebeharririk elementu edo zerbitzu horien hornidurari dagokionez, araubidea edozein dela ere.

Halaber, ADITU BEZEROAREN APLIKAZIOEKIN integratzeko asmoa duenean, BEZEROARI egokituko zaio (i) haien funtzionamendu egokia bermatzea; API RESTerako ezarritako eskakizun tekniko espezifikoak betetzea; eta (iii) API REST instalatzea, dagozkion eragiketak egitea eta mantentzea, eta ELEKARI ezingo zaio eskatu kontzeptu horiekin erlazionatutako jarduketarik.

Esandakoaren salbuespen gisa, ELEKAK, beharrezkoa denean, BEZEROAREN eskura jarriko du APIak integratzeko zerbitzu bat, zeinak artatuko baititu APIak eta BEZEROAREN APLIKAZIOAK integratzeari buruz BEZEROAK egiten dituen kontsultak.

Edozelan ere, beharrezkoa izango da BEZEROAK eguneratua izatea bere web-nabigatzailea ADITUREN funtzionamendu egokia bermatzeko.

4.2. BEZEROA erregistratzea

ADITURA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko, beharrezkoa da BEZEROA erregistratzea, ELEKAK horretarako ezartzen duen sistemaren bidez.

BEZERO gisa erregistratzea subjektu hauetara mugatzen da:

- Beren jarduera profesionalean ADITU erabili nahi duten profesional pertsona fisikoak; eta
- Beren enpresa-jardueran ADITU erabili nahi duten entitate edo pertsona juridikoak.

BEZEROAK edo haren ordezkariak, erregistroa gauzatzean, ELEKARI bermatzen dio (i) adinez nagusia dela eta legeak kontratuak gauzatzeko eskatzen duen gaitasuna duela edo gaitasun hori duen entitate edo pertsona juridiko bat ordezkatzeko duela behar bezala eta behar diren gaitasunekin; (ii) berak edo ordezkatzeko duen entitateak edo pertsona juridikoak lehenago adierazitako baldintzak betetzen dituela erregistroaren unean; eta (iii) erregistroa gauzatzeko eman duen informazio guztia egiazkoa dela.

4.3. ADITURAKO sarbidea eta erabilera

4.3.1. Sarbide-modalitateak

BEZEROAREN erregistroa egin ondoren, ADITURAKO sarbidea eta erabilera bitarteko hauen bidez egin ahal izango dira:

- Web-sarbidea: Web-nabigatzailearen eta WEB-SARBIDE PUNTUAN eskuragarri dagoen plataformaren bidezko sarbidea eta erabilera.
- API-sarbidea: Kontratatu den kasuetan, ADITU BEZEROAREN APLIKAZIOEKIN integratu ahal da, API REST aplikazioaren bidez. Hala, BEZEROAK BEZEROAREN EDUKIAK ADITUN kargatu ahal izango ditu BEZEROAREN APLIKAZIOETATIK, eta EDUKI PROZESATUAK eskuratu hartatik.

4.3.2. SARTZEKO BAIMENAK

BEZEROAK arduraz erabili behar ditu berari edo haren BARNE-ERABILTZAILEEI esleitzen zaizkien SARTZEKO BAIMENAK, eta BEZEROAREN beraren eta, hala dagokionean, haren BARNE-ERABILTZAILEEN ardura izango da ongi zaintzea eta konfidentzialtasuna; haren erabilera hirugarrenei ez lagatzeko (aldi baterako nahiz behin betiko) eta hirugarrenek sarbidea izan dezaten saihesteko konpromisoa hartu beharko dute.

Baldin eta SARTZEKO BAIMENAK lapurtzen badituzte, galtzen badira edo baimenik gabe sartzen bada norbait, BEZEROAREN ardura izango da berehala egoera horren berri ematea ELEKARI, baimen horiek bertan behera utz ditzan. ELEKA inola ere ez da izango BEZEROAREN edo haren BARNE-ERABILTZAILEEN SARTZEKO BAIMENAK baimenik gabe erabiltzen dituzten hirugarrenek egindako ekintzen erantzulea, lapurretaren, galtzearen edo baimenik gabeko sarreraren jakinarazpena egiten ez den artean.

4.3.3. ADITUREN erabilera

BEZEROAK, ERABILERA-BAIMENAREN bidez, ADITURA pertsonalki sarbidea izateko eta hura erabiltzeko aldi baterako eskubide besterenezina eskuratzen du, eta hura bere jarduera profesionalean erabiltzeko ahalduntzen du, betiere BALDINTZA OROKORRETAN ezartzen denarekin bat etorritz.

BEZEROAK edo haren BARNE-ERABILTZAILEEK ADITU erabili ahal izateko, BEZEROAK aurretiaz KREDITUAK eskuratu eta ordaindu beharko ditu. ADITUREN erabilera BEZEROAK eskuratu eta ordaindutako KREDITUETARA mugatuko da kasu guztietan, halako moldez non agortzen edo iraungitzen direnean, ez BEZEROAK ez haren BARNE-ERABILTZAILEEK ezingo baitute ADITU erabili harik eta KREDITU berriak eskuratu arte.

ADITU erabiltzean, BEZEROAK uko egin beharko die ekintza hauei:

- ADITU, SOFTWAREA edo bere eskura jartzen den haiei buruzko dokumentazio oro aldatzea edo haietatik eratorritako produktuak sortzea;
- SOFTWAREA deskonpilatzen, desmuntatzen, alderantzizko ingeniari-tza egiten edo SOFTWAREAREN iturburu-kodea deszifratzen saiatzea;
- ADITUREN edo SOFTWAREAREN erabilera osorik edo partez saltzea edo alokatzea;
- ADITUN edo hark erabiltzean duen itxura fisikoan dagoen edo jasotzen den edozein marka erregistratu, logotipo, ohar, legenda, sinbolo edo etiketa kentzea edo aldatzea;
- ADITU eta/edo SOFTWAREA legez kontrako edozein jardueratarako erabiltzea, barnean sartzen dela hirugarrenen eskubideak urratzen dituen edozein aplikazio garatzea; eta
- ELEKARI, ADITUREN bidez, informazioa edo datuak helaraztea, baldin eta haiek prozesatzea legeen, moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa bada.

4.3.4. BEZEROAREN EDUKIAREN eta PROZESATUTAKO EDUKIAREN kudeaketa

ELEKAK ez du kontrolatzen ADITUn transkribatzeko, azp tituluak jartzeko, itzultzeko eta/edo bikoizteko kargatzen den BEZEROAREN EDUKIRIK. Horren ondorioz, BEZEROAK, eskusiboki bere ardurapean, bermatu beharko du (i) ADITUren bitartez prozesatzen duen BEZEROAREN EDUKIA legezkoa eta indarreko legediaren, moralaren eta/edo ordena publikoaren arabera izatea; eta (ii) BEZEROAREN EDUKIA ADITUren bitartez prozesatzeko eta transkribatzeko, azp tituluak jartzeko, itzultzeko eta/edo bikoizteko adina eskubideren titularra dela, betiere hirugarrenen eskubideak urratu gabe (bereziki, kasu guztiak aipatzeko asmorik gabe, jabetza intelektualari, jabetza industrialari eta ohorerako eskubideei dagokienez —barne direla IMITAZIOZKO AHOTS

SINTETIKOAK sortzeko eta erabiltzeko beharrezko diren baimenak, hala badagokio—).

Halaber, esandakoa kontuan hartuta, BEZEROA izango da PROZESATUTAKO EDUKIARI gerora ematen dion erabileraren arduradun eksklusiboa, eta ezingo da jo ELEKAK bermeak ematen dituenik eta erantzukizuna hartzen duenik haren zilegitasunari dagokionez.

ELEKAK ADITUREN erabilera eta funtzionamendu egokia bermatzeko teknikoki beharrezkoa den heinean soilik gordeko du bere azpiegituran BEZEROAREN EDUKIA eta PROZESATUTAKO EDUKIA.

Nolanahi ere, ELEKA gaituta egongo da ADITUREN sarbide- eta erabilera-erregistro berriak sortzeko eta kontserbatzeko bere azpiegitura kudeatzeko eta haren segurtasuna mantentzeko, fakturaziorako edo estatistika-helburuetarako, eta BEZEROAK ezingo dio aurka egin jarduketa horri.

5. IRAUPENA

ADITUREN ERABILERA-BAIMENA eta barne hartzen dituen sarbide- eta erabilera-eskubideak hasiera batean urtebeteko iraupenarekin ezartzen dira, KONTRATUA gauzatzen den unetik hasita (hau da, BEZEROA erregistratzen den egunetik hasita).

Iraupen-epe hori luzatu egin ahal izango da urtebeteko epe berdina eta ondokoetan, betiere BEZEROAK ez badu adierazten ERABILERA-BAIMENA luzatu nahi ez duenik; hasierako epea eta/edo luzapenetako edozein amaitu baino gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko du horren berri.

Nolanahi ere, KONTRATUAREN hasierako epea igaro ondoren, BEZEROAK edozein unetan eta aurretiaz abisatu beharrik gabe eskatu ahal izango du ADITUREN erabilera erabat eteteko.

Halaber, ERABILERA-BAIMENA eta, ondorioz, KONTRATUA ere automatikoki eta aldezturik abisatu beharrik gabe iraungiko dira BEZEROAK BALDINTZA OROKORRAK urratzen dituenean.

BEZEROAREN borondatez edo hark BALDINTZA OROKORRAK ez betetzearen ondorioz KONTRATUA azkentzen den kasu horietan, eskuratutako eta azkentze horren unean kontsumitu gabe geratu diren KREDITUAK automatikoki iraungiko dira. Beraz, BEZEROARI inola ere ez dio emango KREDITU horien PREZIOA itzultzeari dagokion eskubiderik.

6. KONDIZIO EKONOMIKOAK

ERABILERA-BAIMENA ordainketa finakoak egin beharrik gabe eta erabileragatiko aurreordainketako sistema baten arabera ematen da, KREDITU-sistema baten bitartez.

Testuinguru horretan, BEZEROAK, ADITU erabili ahal izateko, lehenengo KREDITUAK eskuratu eta haien prezioa ELEKARI ordaindu beharko dio. WEB-SARBIDEAN argitaratuta dagoen PREZIOA aplikatuko da KREDITUAK eskuratzen diren bakoitzean.

PREZIO hori da KREDITUAK eskuratzen diren unean bertan ordaindu beharko da, hauetako moduren batean (BEZEROAK aukeratzen duena):

- Kreditu- edo zordunketa-txartel bidezko ordainketa, SARBIDE-PUNTUKO web-funtzionaltasunetik. Kasu horretan, fakturak igorri eta BEZEROARI bezeroari bidaliko zaizkio ordainketa gauzatu ostean; edo
- Banku-transferentzia bidezko ordainketa, dagokion faktura igortzen denetik 30 egunera.

Oro har, KREDITUEK ez dute izango kontsumitzeko iraungitze-eperik. Hala ere, eta salbuespen gisa, KREDITUAK iraungi direla joko da kasu batzuetan, eta ez da ADITU erabiltzeko aukerarik izango (horrek ez dio emango BEZEROARI haien truke ordaindutako PREZIOA itzultzeko eskubiderik). Hauek dira kasuak:

- Haiek erosteko unean BALDINTZA PARTIKULAR gisa KREDITU batzuetarako iraungitze-epeak berariaz ezartzen diren kasuetan (adibidez, sustapen bereziak);
- Aurreko 5. klausularekin bat etorritik ERABILERA-BAIMENA iraungitzen denean eta eskuratutako eta iraungitze horren unean kontsumitu gabe geratu diren KREDITUAK daudenean, zeinak automatikoki iraungitzat joko baitira.

7. ERABILGARRITASUNA, SEGURTASUNA ETA BERMEA

7.1. ADITUREN erabilgarritasuna

ADITU erabilgarri egongo da hartara sarbidea izateko eta erabiltzeko, 4.3 Klausulan zehazten diren sistemen bidez, urteko egun guztietan, 24 orduetan.

Hala ere, ez da bermatzen ADITUREN erabilgarritasuna EZINBESTE-kasuetan edo ELEKAREN kontrolatik kanpoko kasuetan. Ondorio horietarako, ELEKAREN “kontrolatik kanpoko” kasutzat jotzen da hauekin erlazionatutako gorabehera oro: (i) BEZEROAREN ekipamendu informatikoak; (ii) BEZEROAK erabiltzen dituen komunikazio-sareak eta interkonexio-elementuak, izan propioak edo ELEKAZ bestelako hirugarrenenak; (iii) BEZEROAREN APLIKAZIOAK; eta (iv) hirugarrenek eskaintzen dituzten zerbitzu teknologikoak (esate baterako, ELEKAREN hornitzailearekin kontratatutako cloud computing biltegiatze-zerbitzuak edo zerbitzariak).

Halaber, ADITURAKO sarbidea aldi baterako eten ahal izango da segurtasun-arrazoiengatik, mantentze-lanetarako edo baliabideak berregituratzeko, eta ez da joko ELEKAK bere betebeharrak bete ez dituenik. Nolanahi ere, ahalegin guztiak egingo dira eten horiek ahalik eta gutxiena eragin diezaioten BEZEROARI. Eten programatuak direnean eta ahal den guztietan, aurretiaz jakinaraziko zaio bezeroari.

Azkenik, ELEKAK eskubidea du BALDINTZA OROKORRAK edo, halakorik bada, BALDINTZA PARTIKULARRAK betetzen ez dituen edozein BEZERORI ADITURAKO sarbidea eta erabilera eteteko edo blokeatzeko, aldez aurretik jakinarazi beharrik gabe.

7.2. Segurtasuna

ELEKAK inplementatuta eta eguneratuta dauzka teknikaren egoeraren arabera ADITUREN segurtasuna indartzeko eta prozesatzen duen informazioaren integritatea, erabilgarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren neurri teknikoak.

Hala ere, BEZEROAK jakin behar du Interneteko sistema informatikoen segurtasun-neurriak ez direla erabat fidagarriak eta, beraz, ELEKAK ezin duela bermatu (i) ADITUN jasotzen diren eduki eta zerbitzuak etengabe erabilgarri egotea; (ii) eduki horietan ez izatea akatsik eta izan daitezkeen akatsak zuzentzea; (iii) BEZEROAREN sistema informatikoetan (softwarea eta hardwarea) edo haren dokumentuetan eta haietan jasotako fitxategietan aldaketak eragin ditzakeen birusik edo bestelako elementu kaltegarriak ez egotea; eta (iv) hartutako segurtasun-neurrien hutsezintasuna.

Nolanahi ere, BALDINTZA OROKORREK berez ez dute bermerik ematen BEZEROAREN ekipamendu informatikoen edo BEZEROAREN azpiegituraren eta sarearen segurtasunari dagokienez, eta BEZEROARI dagokio haiek babestea.

BEZEROAK ez du ezabatu, aldatu, saihestu edo manipulatu behar ADITUN instalatuta egon daitekeen inolako babes-gailurik edo segurtasun-sistemarik.

7.3. Bermea

ELEKAK ADITUREN funtzionamendu egokia bermatzen dio BEZEROARI baldintza hauetan:

- SOFTWAREAREN funtzionamendu egokia eta haren programazioko akatsen ondoriozko edozein gorabehera zuzenduko dela bermatzen da.

SOFTWAREAREN programazioko akatsak zuzentzeko jarduketa hori aurkitutako akatsak zuzentzeko egin beharreko aldaketetara mugatuko da.

- Nolanahi ere, berme horretatik kanpo geratzen dira (i) hirugarrenek eskainitako zerbitzu teknologikoak (ELEKAREN hornitzailearekin kontratatutako cloud computing biltegitratze-zerbitzuak edo zerbitzariak), zeinak dagozkien titularrek ezarritako baldintza eta berme-kondizioen mende egongo baitira; eta (ii) ELEKAK dagoeneko BEZEROAREN eskura jarritako ADITUREN gaineko jarduketa edo hobekuntza batek zuzentzen duen edozein gorabehera.
- Halaber, klausula honen xede den bermetik kanpo geratzen dira ELEKARI ez dagozkion arrazoiek eragindako errore eta akats guztiak. Kanpo geratzen dira, besteak beste, BEZEROAREN, haren BARNE-ERABILTZAILEEN edo ELEKATIK KANPOKO HIRUGARRENEK jarduketak eragindako errore edo akatsak, eta ADITURENAK ez diren bitartekoak —besteak beste, BEZEROAREN gailu informatikoak— eragindakoak.
- ELEKATIK kanpoko langileek haren baimenik gabe SOFTWAREAN egiten dituzten aldaketa guztiek automatikoki eragingo dute bermearen galera.
- BEZEROAK onartzen du ADITU “*dagoen moduan*” (“*as it is*”) erabiltzeko eskaintzen dela, eta, beraz, ELEKAK ez du bermatzen BEZEROAK bilatzen dituen

helburu berezietara egokituko denik. Horren ondorioz, ELEKARI ezingo zaio erantzukizunik eskatu baldin eta ADITU, ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK alde batera utzita, ez bada egokia BEZEROAREN behar zehatzetarako.

8. JABETZA INTELEKTUALEKO ETA INDUSTRIALEKO ESKUBIDEAK ENPRESA-SEKRETUA

ADITUREN bidez BEZEROAREN eskura jartzen den SOFTWAREA eta gainerako aktibo, dokumentu eta informazioak, eta elementu horiei edo eratzen dituzten enpresa-sekretuei dagozkien eskubideak ELEKAREN edo hirugarrenen titulartasunekoak dira, eta jabetza intelektualari eta industrialari eta enpresa-sekretuari buruzko Espainiako legeek eta aplikatu beharreko nazioarteko hitzarmenetako xedapenek babesten dituzte.

BALDINTZA OROKORRAK onartzeak ez du esan nahi SOFTWAREARI eta, oro har, ADITURI edo hartan jasotako enpresa-sekretuei dagozkien jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatze-eskubideak BEZEROARENGANA eskualdatzen direnik. Izan ere, BEZEROAK ERABILERA-BAIMENAREN bidez eskuratutako erabilera-baimenari kalterik egin gabe, haien jabeen titulartasunekoak izaten jarraituko dute eksklusiboki.

Horren ondorioz, eta 4.3.3 klausulan ezarritakoarekin bat etorritz, BEZEROARENTZAT debekatuta dago SOFTWAREA deskonpilatzea, desmuntatzea, alderantzizko ingeniariatza egitea, azpilizentzia ematea eta SOFTWARETIK eta oro har ADITUTIK eratorritako obrak edozein modutan igortzea, itzultzea eta egitea.

ADITUN edo hark erabiltzean duen itxura fisikoan ELEKAREN titulartasuneko (erregistratuak egon edo ez) izen komertzialen, marken, logotipoen edo bestelako ikur bereizgarrien erreferentziak sartzea ELEKAREN berariazko baimenik gabe haiek erabiltzeko debekuari lotua dago.

9. DATUEN TRATAMENDUA ETA KONFIDENTZIALITASUNA

9.1. Datu ez-pertsonalen babesa

ADITU erabiltzearen ondorioz tratatzen diren datu ez-pertsonalak BEZEROAREN jabetzakoak izango dira kasu guztietan, haren tratamendua eta hurrengo 9.3 klausulan ezartzen den konfidentzialtasun-beharraren mende geratzen da.

Adierazitako ondorioetarako, datu ez-pertsonaltzat joko da datu pertsonaltzat jotzen ez den eta ADITUREN erabileraren ondorioz tratamenduaren xede den edozein informazio, 2018/1807 ERREGELAMENDUAN (EB) ezartzen diren baldintzetan.

Aurrekoa gorabehera, BEZEROAK espresuki ematen dio ELEKARI baimena BEZEROAK ADITU erabiltzeari dagozkion informazio-datuak atzitzeko eta tratatzeko, betiere egoki erabiltzen dela eta funtzionamendua eta haren erabilera-esperientzia hobetzea bermatzeko.

9.2. Datu pertsonalak babestea

9.2.1. BEZEROAREN datuen tratamendua

KONTRATUA gauzatzen den unean ematen diren BEZEROAREN edo haren ordezkariaren datu pertsonalak eta ERABILERA-BAIMENAREN indarraldian hura

egikaritzearen testuinguruan haiek edo hark ematen dituzten gainerako datuak (esate baterako, izen-abizenak, NAN-zenbakia, helbidea, posta elektronikoko kontua, zordunketa- edo kreditu-txartelaren zenbakia, bankuko kontuaren zenbakia, etab.) bi ALDERDIEN artean ezartzen den kontratu-harremana modu egokian kudeatzeko eta gauzatzeko helburuarekin eta haren oinarri juridikoaren arabera tratatuko ditu ELEKAK.

Datu pertsonal horiek ELEKAK bete beharreko legezko betebeharrak betetzeko jakinarazi behar dizkien entitate eta erakunde publikoei bakarrik jakinaraziko zaizkie.

Testuinguru horretan, jasotzen da beharrezkoa dela BEZEROAK edo haren ordezkariak datu pertsonal horiek ematea eta dagokien entitate eta erakunde publikoei jakinaraztea kontratu-baldintza bat dela, halako moldez non datu horiek ez badira ematen edo ez badira jakinarazten ezinezkoa izango bailitzateke ERABILERA-BAIMENA ematea eta erabiltzea.

Datu pertsonal horiek gordeko dira ALDERDIEN artean ezarritako kontratua modu egokian gauzatzeko beharrezkoa den denboran, eta, beharrezkoa denean, ELEKAK bere legezko betebeharrak gordetzeko bete behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan.

BEZEROAK edo haren ordezkariak eskubidea izango du (i) bere datuetarako irispidea izateko, haiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasunerako eta haiek tratatzeari uko egiteko, dagokionean; horretarako, ELEKARI idatzi beharko dio, hurrengo 11 klausulan jakinarazpenen ondorioetarako ezartzen denaren arabera; eta (ii) Erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean edo dagokion kontrol-agintaritzaren aurrean, bereziki, ezin izan dituztenean bete beren eskubideak.

9.2.2. Datuen tratamendua BEZEROAREN kontura

BEZEROAK ADITU erabiltzeak ELEKAK edo haren hirugarren azpikontratistek BEZEROAREN ardurapean datu pertsonalak tratatzea, bi ALDERDIEK Espainian aplikatu beharreko araudiaren arabera pribatutasunari dagokionez hurrenez hurren dituzten legezko aurreikuspenak bete beharko dituzte.

Datu pertsonalen tratamendu hori Tratamendua Eskatzeko Akordioaren arabera egin beharko da, zeina BALDINTZA OROKORREI erantsen baitaie **Eranskin** gisa.

9.3. **Konfidentzialtasuna**

ADITU erabiltzean, bai BEZEROAK bai ELEKAK beste alderdiaren INFORMAZIO KONFIDENTZIALERAKO sarbidea izango dute, eta, informazio-truke horretan, klausula honetan ezartzen den sekretu-betebeharra gorde beharko da.

Testuinguru horretan, JASOTZAILEAREN betebeharrak dira:

- INFORMAZIO KONFIDENTZIALA BALDINTZA OROKORRETATIK eratortzen zaizkion betebeharrak betetzeko helburu bakarrarekin erabiltzea.

- TITULARRAREN INFORMAZIO KONFIDENTZIALAREN sekretua bermatzeko beharrezko neurriak hartzea, ez dadin jendartean zabaldu, eta ez dezaten hirugarrenek ezagutu.
- TITULARRAREN INFORMAZIO KONFIDENTZIALA ez jakinaraztea hirugarrenei (bere enplegatuak ere kontzeptu horretan sartzen dira), salbuetsita geratzen direla BALDINTZA OROKORREN arabera informazio horretarako sarbidea izan behar duten enplegatuak.

Ez dira sartzen “INFORMAZIO KONFIDENTZIALA” kontzeptuan, eta, beraz, konfidentzialtasun-betebeharretik salbuetsita daude, informazio, datu tekniko edo know-how hauek:

- Domeinu publikokoak, egoera hori JASOTZAILEAREN ekintza batek edo omisio batek eragiten duenean izan ezik.
- JASOTZAILEAK haiek jakinarazteko eskubidea zuela hirugarren baten bidez jakin duenekoak.
- Haien berri ematea TITULARRAK idatziz baimentzen duenekoak.

10. ERANTZUKIZUNA

0 klausulan adierazitakoarekin bat etorriz, ADITUREN erabilera laneko jardueran erabiltzeko asmoa duten profesional pertsona fisiko, erakunde eta pertsona juridikoei zuzentzen zaie. Beraz, kontsumitzailetzat jotzen diren partikularrek ezingo dute erabili.

ELEKAK ez du hartzen eta ez du hartuko BEZEROAREKIKO eta hirugarrenekiko erantzukizunik BEZEROAK 7.3 klausulan adierazitakoaz bestela erabiltzen badu edo ez badu erabiltzen ADITU ITZULTZAILEA.

Bereziki, kasu guztiak aipatzeko asmorik gabe, ELEKAK ez du BEZEROAREN edo hirugarrenen aurrean erantzungo kasu hauetatik eratorritako kalte-galerak gertatzen badira:

- BEZEROAK eta/edo haren BARNE-ERABILTZAILEEK ADITU erabiltzeko unean egindako giza akatsak;
- ELEKAK definitutako ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK alde batera uztea ADITU erabiltzean;
- EZINBESTE-KASUAK eta ELEKAREN kontroletik kanpoko kasuak (aurreko 7. klausulan definitzen denez);
- BEZEROAREN EDUKIA legearen, moralaren eta/edo ordena publikoaren kontrakoa izatea;
- BEZEROAK ez izatea BEZEROAREN EDUKIA transkribatzeko, azpigituluak jartzeko, itzultzeko eta/edo bikoizteko adina eskubide; edo
- BEZEROAK PROZESATUTAKO EDUKIARI gerora ematen dion erabilera.

ELEKAK ez du erantzungo, halaber, BEZEROAK edo edozein HIRUGARRENEK erreklamatzeko dituzten eta kalte eratorri, lortu gabeko iragazi, negozio-galera, irudiaren kalte edo ospe komertzialaren galera gisa kalifika daitezkeen kalte-galeren aurrean.

Azkenik, ADITUREN erabilerari zuzenean egotz dakizkiokeen kontzeptu guztiengatik ELEKAK duen erantzukizunak ezingo du gainditu BEZEROAK ERABILERA-BAIMENAREN indarraldiko azken urtekoan ordaindutako PREZIO totalari dagokion zenbatekoa.

11. BESTE BATZUK

11.1. Jakinarazpenak

ALDERDIEK helbide hauek ematen dituzte jakinarazpenetarako helbide gisa:

- ELEKA INGENIARITZA LINGUISTIKOA SLU
Zelai Haundi 3, Osinalde Industrialdea.
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
H. el.: aditu@elhuyar.eus.
- BEZEROA: Erregistroaren izapideetan adierazitako posta-helbidea eta helbide elektronikoa.

BALDINTZA OROKORRETAN jasotzen denaren arabera ALDERDIEK elkarri egin behar dizkieten jakinarazpenak idatziz egin beharko dira, adierazitako helbideetara zuzenduta, jaso izana, bidaltze-data eta edukia egiaztatzeko aukera ematen duen edozein baliabideren bidez, posta elektronikoa ere barnean dela, baldin eta bi ALDERDIEK jakinarazpenetarako baliozko modutzat onartzen badute.

Klausula honetan jasotzen dena betez egiten diren jakinarazpenak baino ez dira izango baliozkoak eta eraginkorrak. Helbide-aldaketak ez dira eraginkor izango jakinarazten direnetik 2 egun natural igaro arte.

11.2. Klausulen independentzia

Baldin eta BALDINTZA OROKORRETAKO klausularen bat deuseza edo deusezta daitekeena bada, gainerako BALDINTZA OROKORRAK ez dira baliogabetuko; indarrean eta eraginkorrak izaten jarraituko dute.

11.3. Izenburuak

BALDINTZA OROKORRETAKO izenburuak erreferentzia gisa baino ez dira jartzen, eta ez dute mugatzen haien zentzua eta edukia.

11.4. Kontratu osoa

BALDINTZA OROKORREN aldaketak edo zuzenketak ez dira baliozkoak izango, baldin eta ez badituzte onartzen bi ALDERDIEK, aldaketaren edukia eta bi ALDERDIEK onartu dutela egiaztatzeko aukera ematen duen prozedura fisiko edo digital baten bidez.

11.5. Egunen zenbaketa

BALDINTZA OROKORRETAN jasotzen diren “egunen” aipamenak egun naturalak direla joko da, espresuki kontrakoa ezartzen ez bada.

11.6. Lege aplikagarria eta jurisdikzioa

BALDINTZA OROKORRAK Espainiako ordenamendu juridikoaren mende daude.

ADITURA sarbidea izatetik eta hura erabiltzetik erator daitezkeen gatazkak konpontzeko, ALDERDIEK berariaz adosten dute Donostiako (Gipuzkoa) epaitegien mende geratzen direla, eta eta uko egingo diote egokitu dakiekeen beste edozein foruri, aplikatu beharreko legediak aukera ematen duenean.

* * *

ERANSKINA

TRATAMENDU-ERAGILE IZATEKO AKORDIOA

ADITURA sarbidea izateak eta hura erabiltzeak berekin dakar ELEKAK datu pertsonal jakin batzuk tratatzea tratamenduaren arduradun gisa, eta BEZEROAREN erantzukizunarekin.

Datu pertsonalen tratamendu horiek egingo dira (i) 95/46/EE Direktiba indargabetzen duen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/769 Erregelamenduarekin bat (pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta haien zirkulazio libreari dagokienez) (aurrerantzean, “**DBEO**”); eta (ii) Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, “**DBEDBLO**”) ezarritakoarekin bat, eta KONTRATUAN ezartzen diren aurreikuspenek eta xedapen hauek zuzenduko dute:

1. TRATAMENDUA ETA ERAGINDAKO DATU PERTSONALAK

BEZEROAK ADITU erabiltzeko behar diren datu pertsonalen tratamendua egingo du ELEKAK, DBEOren 28. artikuluan, DBEDBLOn eta datuen babesaren inguruan aplikatu beharreko gainerako arauetan ezartzen denarekin bat.

Tratamendu hori BEZEROAREN ardurapeko diren honako datu hauen gainean egingo da (aurrerantzean, “**DATU PERTSONALAK**”):

EGIN BEHARREKO TRATAMENDUA	☐ Jasotzea ☐ Erregistratzea ☒ Egituratzea ☒ Aldatzea/itzultzea ☒ Gordetzea ☐ Erauztea ☐ Kontsultatzea ☒ Transmisioagatiko komunikazioa ☐ Hedapena ☐ Interkonexioa ☐ Parekatzea ☐ Mugatzea ☒ Ezabatzea ☒ Suntsitzea ☐ Komunikatzea ☒ Beste batzuk: Transkribatzea eta itzultzea.
TRATAMENDUAREN XEDEA	☒ Bezeroen kudeaketa, kontabilitatekoa, fiskala eta administratiboa ☐ Nominen kudeaketa ☐ Ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko informazio-zerbitzuak ematea ☐ Zerbitzu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak ☒ Publizitatea eta merkataritza-azterketa ☐ Komunikazio-zerbitzuen gidak/katalogoak ☐ Ziurtatze elektronikoko zerbitzuak ematea ☐ Asoziazio-, kultura-, aisialdi-, kirol- eta gizarte-jarduerak kudeatzea ☐ Hezkuntza ☐ Osasungintzako kudeaketa eta kontrola ☐ Segurtasun pribatua ☐ Bideozaintza

	☐ Eraikinetako segurtasuna eta sarbidearen kontrola ☐ Giza baliabideak ☐ Laneko arriskuen prebentzioa ☐ Diruzko betebeharrak betetzea/ez betetzea ☐ Profilen azterketa ☐ Komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematea ☐ Merkataritza elektronikoa ☐ Alderdi politiko, sindikatu eta elizetako bazkide eta kideen kudeaketa ☐ Gizarte-laguntzaren kudeaketa ☐ Ikerketa epidemiologikoa eta antzeko jarduerak ☐ Historia klinikoa ☐ Helburu estatistiko, historiko edo zientifikoak ☒ Beste batzuk: aktibo digitalak ustiatzea.
DATU-MOTA	☒ Identifikazio-datuak ☒ Ezaugarri pertsonalak ☒ Akademiko eta profesionalak ☒ Merkataritza-informazioa ☐ Egoera sozialak ☐ Lanpostuaren xehetasunak ☐ Ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak ☐ Ondasun eta zerbitzuen transakzioak ☐ Datuen kategoria bereziak: ☒ Irudia eta/edo ahotsa ☐ Beste batzuk:
INTERESDUNEN KATEGORIAK	☒ Langileak ☒ Bezero eta erabiltzaileak ☒ Hornitzaileak ☐ Bazkide eta kideak ☐ Jabe eta maizterrak ☐ Pazienteak ☐ Ikasleak ☐ Harremanetarako pertsonak ☐ Guraso edo tutoreak ☐ Legezko ordezkaria ☐ Eskatzailea ☐ Onuradunak ☐ Kargu publikoak ☒ Eduki digitaletan agertzen diren beste interesdun batzuk.

2. ELEKAREN BETEBEHARRAK

- a) BEZEROAK ADITU erabiltzea errazteko behar diren jarduketak egitera mugatuko da, BALDINTZA OROKORRETAN aurreikusten denarekin bat etorritik, eta BEZEROAK une bakoitzean ematen dizkion jarraibideetara egokituko da.

Baldin eta iruditzen bazaio BEZEROAK ematen dion jarraibideren batek DBEO, DBEDBLO edo Europar Batasuneko edo estatu kideetako datu-babeseko beste edozein xedapen urratzen duela, berehala adierazi beharko dio hori bezeroari.

- b) Ez du egingo beste inolako tratamendurik DATU PERTSONALEKIN, eta ez ditu aplikatuko eta erabiliko aurreko a) letran adierazitakoaz bestelako helburuekin.
- c) Bermatuko du DATU PERTSONALAK tratatzeko baimendutako pertsonen datu pertsonalak babesteko behar den prestakuntza jasoko dutela.
- d) BEZEROAREN kontura egiten dituen tratamendu-jarduera guztiak jasotzen dituen idatzizko erregistro bat izango du, DBEOk eta DBEDBLOk xede horretarako ezartzen duten edukia eta irismen dituen.
- e) Europako Esparru Ekonomikoan dauden azpiegitura propioetan edo hirugarrenen azpiegituretan gordeko ditu DATU PERTSONALAK, eta ez dizkie beste pertsona batzuei zabalduko, transferituko edo beste moduren batean jakinaraziko.
- f) Baldin eta DATU PERTSONALAK hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitu behar baditu, dagokion Europar Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera, legezko betebeharrak horren berri emango dio BEZEROARI aurrez, non eta zuzenbide horrek ez duen debekatzen, interes publikoko arrazoi garrantzitsuengatik.
- g) BEZEROAREN eskura jarriko du bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko beharrezko informazio guztia.
- h) Hala dagokionean, datuak babesteko ordezkari bat izendatuko du, eta haren izena eta harremanetarako datuak emango dizkio BEZEROARI.

3. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA

Segurtasun-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolamenduzko neurriak ezarriko ditu ELEKAK; horretarako, kontuan izan beharko dira teknikaren egoera eta teknika aplikatzeak duen kostua, arriskuei eta babestu beharreko DATU PERTSONALEN izaerari dagokienez, eta hauek egin beharko ditu kasu guztietan:

- a) Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorrak bermatu.
- b) Gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, DATU PERTSONALEN erabilgarritasuna eta sarbidea bizkor leheneratu.
- c) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratu erregularitasunez.

Zehazki, ELEKAK segurtasun-neurri hauek edukiko ditu:

- a) Bere langileei dagokienez, erabiltzaile bakoitzak bere funtzioak egiteko behar dituen baliabideetara bakarrik izan beharko du sarbidea, eta mekanismoak ezarri behar dira erabiltzaileek ez dezaten izan behar ez dituzten baliabideetara sartzeko modurik.

- b) Erabiltzaileen, erabiltzaileen profilen eta bakoitzak baimenduta dauzkan sarbideen zerrenda eguneratu bat izan beharko du.
- c) Datuetarako sarbidea telekomunikazio-sareen bidez urrunetik denean, lokaletako sarbideen pareko segurtasun-maila bermatzeko moduan egin beharko da hori.

Horretarako, bere langileen taldeko erabiltzaileak zehazki identifikatu eta baimentzeko aukera ematen duten mekanismoak izan beharko ditu, eta baimendu gabe datuetara sartzen behin eta berriz saiatzeko aukerak mugatu. Baldin eta sistema hori pasahitzak erabiltzean oinarritzen bada, pasahitzek aldi berean iraungitzen direnak izan beharko dute.

- d) Gorabeheren erregistro bat izan beharko du, eta ADITUREN funtzionamenduan izandako gorabeheren berri eman beharko dio BEZEROARI.
- e) Ez da probarik egingo DATU PERTSONALEKIN.
- f) Prozedurak ezarriko ditu babes- eta berreskuratze-kopiak egiteko eta suntsitu beharreko dokumentazio eta informazioa suntsitzeko.
- g) Datuen babesaren inguruan indarrean dagoen legediari buruzko trebakuntza eta informazioa emango die langileei.
- h) BEZEROARI adieraziko dio datuak babesteko ordezkaria nor den, edo, halakorik ez bada, segurtasun-neurri horiek gauzatu eta ikuskatzearen ardura zuzena duen pertsona edo pertsonak.
- i) BEZEROAK eskatzen badio, haren kontura tratatutako datuen datuen eta hark emandako dokumentazioaren konfidentziasuna eta osotasuna bermatzeko hartutako neurriak eta azaltzen dituen memoria bat emango dio.

4. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNAREN URRAKETEN BERRI EMATEA

ELEKAK jakinaraziko dio BEZEROARI, atzerapen bidegaberik gabe, eta betiere gehienez hirurogeita hamabi (72) orduko epean, bere ardurapean dauden DATU PERTSONALEN zer segurtasun-urraketa gertatu diren berak dakiela, eta, horrekin batera, gorabehera dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzitsua den informazio guztia emango dio, DBEO eta DBEDBLOn ezarritakoaren arabera.

Ezinezkoa gertatzen bada informazioa aldi berean ematea, eta ezinezkoa den neurrian, informazioa pixkanaka emango da, atzerapen desegokirik gabe.

5. KONFIDENTZIALTASUN-BETEBEHARRA

EKEKAK sekretua gordetzeko betebeharra eta konfidentziasun-betebeharra du BEZEROAREKIN duen kontratuaren indarraldian, eta, informazio-motaren

arabera, eta luzatu egingo da aplikatu beharreko indarreko legedian aurreikusten diren gehieneko epeetan.

ELEKAK bermatuko du DATU PERTSONALAK tratatzeko baimena duten pertsonak berariazko konpromisoa hartuko dutela, espresuki eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta beharrezko segurtasun-neurriak betetzeko.

Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonatzat joko dira, ELEKAREKIN edozein lotura juridiko dutela ere, edozein baliabideren bitartez DATU PERTSONALETARAKO sarbidea duten pertsona guztiak.

6. AZPIKONTRATATZEA

ELEKARI baimena ematen zaio hirugarrenen zerbitzu teknologikoak hirugarren erakunde batzuekin azpikontratatzeko, eta, horrenbestez, zerbitzu horiek berekin dakartzaten DATU PERTSONALEN tratamendurako.

DATU PERTSONALAK tratatzea dakarten gainerako prestazioak azpikontratatzeko eta beste edozein enpresa azpikontratista kontratatzeke edo ordezkatzeko, BEZEROAREN alde aurretiko baimen zehatz eta idatzizkoa beharko du.

Azpikontratista horiek kasu guztietan bete beharko dituzte dokumentu honetan ELEKARENTZAT ezartzen diren betebeharrak eta BEZEROAK agintzen dituen jarraibideak.

7. INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

ELEKAK BEZEROARI lagunduko dio interesdunen eskubideak gauzatzen, datuen babesari dagokionez (irispidea izateko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunerako eta erabaki indibidualizatu automatizatuaren eraginpean ez egoteko eskubideak).

8. BEZEROAREN BETEBEHARRAK

BEZEROAK betebeharrak hauek ditu:

- a)** DATU PERTSONALEN tratamenduaren zilegitasuna eta interesdunei datu pertsonalen babesari buruzko informazioa emateko betebeharra betetzen dela bermatzea.
- b)** Aginduko den tratamendutik erator daitezkeen arriskuen azterketa egitea, eta azterketa horretan oinarrituta, ELEKARI adieraztea, hark aurrez definitutako neurriak alde batera utzita, DATU PERTSONALAK tratatzeko zer neurri tekniko eta zer antolaketa-neurri ezarri beharko dituen.
- c)** Beharrezkoa bada, Tratamendu-eragile izateko Akordio honetan jasotzen diren tratamenduko ekintzek datu pertsonalen babesean izango duten eraginaren ebaluazio bat egitea.
- d)** Dagokion kontrol-agintaritzan egin beharreko aurretiko kontsultak egitea, hala dagokionean.

- e) ELEKAK tratamenduaren aurretik eta tratamenduan zehar DBEOn eta DBEDBLOn ezarritakoak betetzen dituela zaintzea.
- f) Tratamendua gainbegiratzea, eta ikuskapenak eta auditoretzak egitea hala dagokionean.

9. DATU PERTSONALAK ITZULTZEKO EDO SUNTSITZEKO BETEBEHARRA

Edozein arrazoi dela medio ERABILERA-BAIMENA amaitutakoan eta iraungitakoan, baldin eta BEZEROAK ez badu eskatzen suntsitzeko, ELEKAK konpromisoa hartzen du BEZEROARI itzultzeko hark igorritako eta DATU PERTSONALAK jasotzen dituen informazioa eta BEZEROAK ADITURA sarbidea izatearen eta hura erabiltzearen ondorioz erabili duen beste edozein informazio itzultzeko.

DATU PERTSONALAK erabilera arrunteko formatu batean BEZEROARI edo hark zehazten duen pertsonari emanda edo helarazita egiaztatuko da itzulketa.

Datu pertsonalak itzultzeko prozesua bukatzen denean, ELEKAK suntsitu egin beharko ditu ekipamendu informatikoetan eta erabilitako gainerako euskarrietan dauden DATU PERTSONALAK.

Aurreko paragrafoetan zehaztutakoa gorabehera, ELEKAK DATU PERTSONALAK eta tratatutako informazioa gorde ahal izango ditu, behar bezala blokeatuta, BEZEROAREKIKO erlaziotik erantzukizunak eratortzeko aukera badago.

DATU PERTSONALAK gordetzea eragin zuten ekintzek preskribatzen dutenean, ELEKAK suntsitu egin beharko ditu.

* * *